

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25102 - Psikologiako Metodologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

"Psikologiako Metodologia" Psikologiako Graduko 1. mailako oinarrizko gaietako bat da. Metodologia jakintza arloko irakasgai bat da eta beste hiru irakasgai erlazionatzen dira honekin: Datuen analisia eta diseinuak: metodo ez-esperimentalak, Psikometria, eta Diseinuak eta Datuen analisia: Metodo esperimentalak. Irakasgai honetan ikasten dira ikerketa zientifikoaren prozesua eta oinarrizko datu analisiak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Metodo zientifikoa eta Psikologian erabiltzen diren metodologia estrategia nagusiak ezagutzea.
2. Iturri espezializatueta bibliografia bilaketa informatizatuak egiteko trebetasunak garatzea, ikerketa arazoak eta hipotesiak planteatzen jakitea eta aldagaiak operazionalki definitzea, software espezifikoak erabiliz datuak aztertzea eta emaitzak interpretatzea, ikerketaren oinarri etikoen arabera lana eginez.
3. Datu analisiaren oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta bere aplikapenerako baldintzak ezagutzea.
4. Ikerketa txosten baten egitura ezagutzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Gaia. Metodo Zientifikoa
2. Gaia. Psikologiako ikerketaren prozesua
3. Gaia. Ikerketa metodoak Psikologian
4. Gaia. Datuen azterketa deskriptiboa
5. Gaia. Estatistika inferentzialerako sarrera

METODOLOGIA

Irakasgai honetan hainbat metodo erabiltzen dira. Lan autonomoa sustatuko da, ikasleei gaiaren alde desberdinak ulertzen lagunduko dieten baliabide informatiko eta bibliografikoen bidez. Gaiaren kontzeptuak azaltzeko klaseak emango dira, eta noiz edo behin ikasleek parte hartu beharko dute edukiei buruzko eztabaidetan. Ikasgelan ikasleek esku hartuko dute problemak ebazteko lanetan. Problema eta ariketak emango zaizkie, banaka edo taldean ebazteko. Ordenagailuko praktikan datuak aztertzeke oinarrizko programak erabiliko dira. Ikasleei ikaskuntza erraztu eta bermatzeko, jarraipena egingo zaie bai ikasgelako praktikei eta ordenagailuko ere. Bi talde lan mintegietan aurkeztu beharko dira. Feedbacka emango zaie aurretik ezarritako ebaluazio irizpideen arabera, ikasleek kontzientzia har dezaten beren ikaste prozesuaz eta bera hobetzeko moduez.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	34	2	6		10		8		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	51	3	9		15		12		

Legenda:

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 50
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Banakako lanak % 17
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 3
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAITUA: Gaiaren eduki teorikoen ebaluazioa bi azterketa partzialen bitartez egingo da eta notaren %70a suposatuko du. Horrela, lehenengo azterketa partzialak %30a suposatuko du (Test motakoa) eta bigarrenak berriz

(Test motakoa eta buruketak) %40a. Buruketak egiteko orduan estatistikako formulak kontsultatu daitezke. Irakas-modalitate praktikoen ebaluazioak gelditzen den notaren %30a suposatuko du.

Ebaluazio jarraitua egiten duten ikasleek, bi azterketa partzial egiteko aukera izango dute: 7. astean eta azterketen urtarrileko deialdi ofizialeko datan. Bi azterketa hauek materia "liberatzeko" dute baina azterketa hauek gutxienez gainditu egin beharko dira.

UGO EGITEA: Ebaluazio jarraitua egiten dutenek, deialdiaren etsamina egiteko nahikoa izango da bigarren partzialera ez aurkeztea, ez da beharrezkoa izango idatziz eskatzea irakasleari.

AZKEN FROGA: Ebaluazio jarraitua ez dutenak egin edo praktiken atala gainditu gabe dutenak, azken azterketako emaitza izango da beraien notaren %100. Beste kasuetan azterketa finalak suposatuko du %70, baina azterketa hori gutxienez gainditu egin beharko dute irakasgaia gainditzeko. Azterketa honek azterketa partzialen formatua izango du eta 2 ordu eta erdi iraungo du gehienez.

EBALUAZIO EZ-PRESENTZIALA (OSASUN-ALERTAREN KASUAN SOILIK): Ebaluazio ez-presentzialaren kasuan, ebaluazio jarraituaren aukerarako erabiltzen diren ebaluazio irizpide berak mantenduko dira, baina irakasgaiaren lan, ebaluazio-proba edo aurkezpen guztiak modu birtualean egingo dira (Egela, BBC Collaborate, beste plataforma birtual batzuk). Internetera konektatzeko arazoak dituzten ikasleen kasuan (aurrez jakinarazitako egoerak edo probaren bat egin bitartean gerora sortutako egoerak), beste aukera batzuk erabiliko dira, ahal den neurrian: posta elektronikoa, banakako edo talde elkarrizketa telefono bidez edo beste plataforma batzuk erabiliz.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian erabiliko dira ebaluazio jarraitua ezin duten eta azken ebaluaziora doazen ikasleekin erabiliko diren irizpide berberak, hots:

1. Lehenengo eta bigarren partzialari dagokion test motako galderez osatutako proba bat egongo da. Proba honetan ezingo dira materialak erabili.
2. Estatistikako buruketak. Proba honetan materialak erabiltzeko aukera egongo da.

Ebaluazio ez presentziala egin behar bada, ebaluazio irizpide eta froga motak mantenduko dira baina modu birtualean egingo dira E-gelaren bitartez.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ikasmateriala, liburuak eta artikulu zientifikoak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Botella, J. (2004). Análisis de datos en Psicología I: Teoría y ejercicios. Madrid: Pirámide.
- Cubo, S., Martín, B. eta Ramos, J.L. (2011). Métodos de investigación y análisis de datos en ciencias sociales y de la salud. Pirámide.
- Etxeberria, J. (2011). Estadística aplikatua. Teoria eta praktika. Usurbil: Elhuyar.
- Fontes, S., García, C., Garriga, A. J. Pérez-Llantada, M.C. eta Sarriá, E. (2001). Diseños de investigación en psicología. Madrid: UNED.
- Gorostiaga, A. eta Balluerka, N. (2007). Ikerketa metodoak eta diseinuak Psikologian. Donostia: Erein.
- León, O.G. y Montero, I. (2004). Métodos de investigación en psicología y educación (3ª Ed.). Madrid: McGraw-Hill.
- Martín, Q. (2001). Contrastes de hipótesis. Madrid: La Muralla.
- Martín González, G. (2008). Prácticas de estadística básica con SPSS. Valencia: Universidad Católica de Valencia. Servicio de Publicaciones.
- Merino, J.M., Moreno, E., Padilla, M., Rodríguez Miñón, P. eta Villarino, A. (2002). Análisis de datos en psicología I. Madrid: UNED.
- Pardo, A. eta Ruiz, R. (2009). Gestión de datos con SPSS Statistics. Madrid: Síntesis.
- Pardo, A. eta San Martín, R. (2010). Análisis de datos en ciencias sociales y de la salud II. Madrid: Síntesis.
- Pardo, A., Ruiz, M.A. eta San Martín, R. (2009). Análisis de datos en ciencias sociales y de la salud I. Madrid: Síntesis.
- Tomeo, V. eta Uña, I. (2009). Estadística descriptiva. Madrid: Garceta.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Anguera, M.T., Arnau, J., Ato, M., Martínez, R., Pascual, J. eta Vallejo, G. (1995) Métodos de investigación en Psicología. Madrid: Síntesis.
- Ato, M. (1991). Investigación en Ciencias del Comportamiento I. Fundamentos. Barcelona: PPU.
- Elosua, P. eta Etxeberria (2013). R Commander eta Datuen Análisis. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Gambara, H. (2014). Métodos de Investigación en Psicología y Educación. Cuaderno de prácticas. McGraw-Hill: Madrid.
- García-Pérez, A. (2010). Estadística Básica con R. Madrid: UNED Graduado de Psicología.
- Ibabe, I. eta Etxeberria, J. (2001). Datu-análisis eta SPSS. Praktikak. Usurbil: Elhuyar.
- Peralta, M.J. Rúa, A., Redondo, R. eta Campo, C. (2007). Estadística: Problemas resueltos. Madrid: Pirámide.

Seisdedos, A. (1994). Problemas de estadística aplicada a las ciencias sociales. Salamanca: Amaru.
Visauta, B. (2007). Análisis estadístico con SPSS 14. Madril: McGraw-Hill.

Aldizkariak

- 1.- Psicothema
- 2.- Spanish Journal of Psychology
- 3.- Anales de Psicología
- 4.- Estudios de Psicología

Interneteko helbide interesgarriak

-UNED, Psikologia Matematikoa I: <http://ocw.innova.uned.es/ocwuniversia/psicologia/analisis-de-datos-en-Psico-I>
-Madrilgo Unibertstitate Autonomoa, Metodologia Saila: http://www.uam.es/personal_pdi/psicologia/carmenx/AnalisisI.html
-IBM (2017). Guía breve de IBM SPSS Statistics 24. IBM SPSS Statistics.
ftp://public.dhe.ibm.com/software/analytics/spss/documentation/statistics/24.0/es/client/Manuals/IBM_SPSS_Statistics_Brief_Guide.pdf

OHARRAK